

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hogeita batean, arratsaldeko zortzietan, alboan adierazitako zinegotziak bildu dira, Miguel Javier Recalde Goldaraz alkatea buru dela, eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkari jauna lagun dutela.

Deialdia egin ondoren egin da bilkura hau, arauzko aurrerapenarekin, eta deialdiaren ale bat eta gai-zerrenda udaletxeko iragarki-oholean jarrita jakinarazi da.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. ANDER PRADOS OTAMENDI ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA

HAOLO legearen 108.8 artikuluan ezarritakoa betetzeko, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan aurreikusitako formularen arabera, Ander Prados Otamendi hautagai hautetsiak, karguaren betebeharrak Erregearekiko leialtasunez beteko duela zin egin du eta Konstituzioa Estatuaren oinarritzko arau gisa gorde eta betearaziko duela agindu du, "legeak hala agintzen duelako".

2. UDAL BILKUREN EPEALDIEN ONARPENA

Toki Erakundearen Antolaketa eta Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 38. eta 78.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurak, aho batez, honako bilkura-erregimen hau onartzea erabaki du:

Beteluko Udalak hileko lehenengo asteazkenean egingo ditu ohiko osoko bilkurak, 19:00etan.

3. UDALBATZAREN EZAGUERARAKO. ALKATEORDEEN IZENDAPENA

Osoko Bilkurari jakinarazi zaio Beteluko Udaleko alkate Lorenzo Zubillaga Goicoechea jaunak, 2023ko ekainaren 20an, **52/2023 EBAZPENA** eman duela:

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikuluan eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.3 eta 46.1 artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, erabaki dut Nerea Yeregui Balda eta Igor Otermin Eguia, Beteluko Udaleko lehen eta bigarren alkateorde izendatzea hurrenez hurren, alkatea eginkizun guztietan ordezkatzeko, hura kanpoan bada, eri edo bere eginkizunetan aritzeko ezindurik badago.

Hori guztia Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 46. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4. KONTUEN BATZORDE BEREZIAREN IZENDAPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1 e) eta 116. artikuluetan KONTUEN BATZORDE BEREZIARI buruz xedatutakoa betez, nahitaezko organo horrek Beteluko Udalaren Kontuak aztertu eta informatuko ditu.

Beteluko Udaleko Osoko Bilkurak aho batez erabaki du Beteluko Kontuen Batzorde Berezia sortzea. Honako hauek osatuko dute:

1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea.
2. Cristina Val Sardon
3. Iñaki Elizalde Zubillaga

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 116. artikulua, toki-erakundeen antolaketa eta funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzko Erregelamenduaren 127.2 artikulua eta horiek osatzen dituzten gainerako arauak ematen dizkieten eskumenekin.

5. UDAL KIDE ANITZEKO ORGANO ETA UDAL-ZERBITZUKO ORDEZKARIEN IZENDAPENA.

Toki Erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 38. artikulua aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

Udal kide anitzeko órgano eta udal-zerbitzuko ordezkarien izendapena

| | |
|---|--|
| -Araxes Garaiko zaborren Mankomunitatea | 1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea 2. Iñaki Elizalde Zubillaga 3. Nerea Yeregui Balda 4. Aitziber Otamendi Echarri |
| -Ihurtzun eskualdeko gizarte zerbitzuen mankomunitatea | 1. Aitziber Otamendi Echarri Ordezkoa: Nerea Yeregui Balda |

| | |
|---|--|
| -Cederna Garalur elkarte | 1. Nerea Yeregui Balda 2. Lorenzo Zubillaga Goicoechea |
| -Agenda Local 21 | 1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea 2. Nerea Yeregui Balda |
| -Eskola kontseilua. Araxes eskualdeko ikastetxe publikoa | 1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea Ordezkoa: Cristina Val Sardon |
| -Aralar Udal Musika Eskola / Escuela de Música Aralar | 1. Iñaki Elizalde Zubillaga Ordezkoa: Ander Prados Otamendi |
| -Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea / Mancomunidad de Euskera Zona Norte. | 1. Igor Otermin Eguia Ordezkoa. Lorenzo Zubillaga Goicoechea |
| -Araitz-Betelu-Areso-Larraun-Lekunberri Kirol Mankomunitatea / Mancomunidad Deportiva Araitz-Areso-Betelu-Larraun-Lekunberri | 1. Igor Otermin Eguia. Sustituto. Iñaki Elizalde Zubillaga. |
| -Aralarko elkarte. | 1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea 2. Ander Prados Otamendi |
| - Asistencial Villa de Betelu, S.A.ren administrazio kontseilua | 1. Cristina Val Sardon 2. Lorenzo Zubillaga Goicoechea |
| - Beteluko Haur eskolako hezkuntzaren zentroaren segimendurako batzorde mistoa | 1. Nerea Yeregui Balda Sustituto: Cristina Val Sardon |
| -Beteluko hirigintzako udal plan orokorraren segimendurako batzordea. | 1. Lorenzo Zubillaga Goicoechea 2. Igor Otermin Eguia 3. Ander Prados Otamendi |

6. UDALBATZAKO KIDEEEN LANSARIAK, BILKURA-SARIAK ETA KALTE-ORDAINAK.

Udalbatzako kideen ordainsariak, bertaratzeak eta kalte-ordainak adierazteko hasitako prozedura aztertu da, Kontuhartzaitzaren eta Idazkaritzaren txostenekin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan eta Toki Erakundearen Antolamendu, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 13. artikuluan agindutakoari jarraiki, eta Udalaren ezaugarri bereziak aztertu ondoren, Beteluko Udalak honako hau ERABAKI DU:

BAT: Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkate jaunak lanaldi partzialarekin beteko du bere kargua.

Urtean 908 orduko dedikazio efektiboa ezartzen zaio, urteko lanegunetan banatuta, asteko hogeitau orduaren arabera, eta betetzen duen karguaren beharretara egokituta ordutegia.

BI: Alkatetzarako ordainsarien erregimen hau ezartzen da:

- 17.298,32 €urtean, hamabi hilekotan ordainduta.

Horrek guztiak 2023ko ekainaren 17tik aurrera izango ditu ondorioak.

Lansari hau udal langileen modu berean egokituko da, igoera berberak aplikatuz.

HIRU: Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari Lorenzo Zubillaga Goicoechea alkatearen alta eskatuko zaio.

LAU: Udal honek bere gain hartuko du enpresa-kuotaren ordainketa.

BOST: Udalbatzako kide anitzeko organoen bilkuretara benetan joateagatik, dedikazio eskusiborik edo dedikazio partzialik ez badute, honako asistentzia-erregimen hau ezartzen da:

- Korporazioko kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik: 72,00 €.

Nolanahi ere, kide anitzeko organo bakoitzak gehienez ere hamabi bilera egin ahal izango ditu urtean.

2023. urte honetarako, korporazio berriko kide bakoitzak gehienez ere sei bilera egin ahal izango ditu kide anitzeko organoan.

SEIGARRENA: Kargua betetzean benetan egindako gastuengatik KALTE-ORDAINAK agiri bidez justifikatu beharko dira. Norberaren ibilgailuan egindako bidaia-gastuengatik 0,30 € ordainduko dira. Egindako kilometroen arabera.

ZAZPIGARRENA: Erabaki hau jendaurrean jartzea, Udaleko iragarki-oholean ezarri eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Lehendakariak bozketarako aurkeztu du erabakia, eta Udalbatzak aho batez onartu du.

7. ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA: ESLEIPENA

"ARAXES ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAN IGOGAILUA JARTZEA" obrak egiteko kontratazio-espeditentean aurkeztutako proposamenak kalifikatzeko eta baloratzeko eraturako kontratazio-mahaiak aurkeztutako esleipen-proposamena ikusita

Beteluko Udaleko osoko bilkurak hau ERABAKI DU:

1. Kontratazio Mahaiak "Araxes Eskualdeko Ikastetxe Publikoan igogailua jartzea.

2. Kontratua honako hauei esleitzea:

Enpresa: Construcciones Francisco Aierbe SL IFZ: B20756268

Helbidea: Bazurka industrialdea 49, 20260, Alegia (Gipuzkoa)

Lizitazioaren prezioa: 114.865,09 euro (BEZik gabe)

Esleipenaren prezioa: 114.863,93 euro (BEZik gabe)

Prezioaren aldaketa lizitazioarekiko: % 0,01 beherantz

Esleipen-datak erabateko eraginkortasuna izango du, esleipenaren jakinarazpena lizitatzailerak bidaltzen zaien egunetik 10 egun naturaleko epea igaro ondoren.

"Araxes Eskualdeko Ikastetxe Publikoan igogailua jartzea" obrak kontratatzeko pleguaren 19. artikulua arabera, esleipendunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, gehienez ere zazpi egun naturaleko epean, esleipena jakinarazten denetik:

- Kontratuaren ondoriozko betebeharrak betetzeko bermea udalaren alde jarri izanaren egiaztatzea.
- Aseguru-poliza eta obra-prozesuaren ondoriozko arriskuak estaltzen dituen aseguruaren primaren ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa, lizitazio-aurrekontuaren adinako kalte-ordainaren gutxienezko mugarekin.
- Urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuan zehaztutako Laneko Segurtasun eta Osasun Planaren bi ale.
- Kontratua hasten den egunean eguneratutako obra-plana, non kontratuaren arduraduna zein den adieraziko den. Eskaintzaren epeak eta programazioa pleguan ezarritakoaren arabera mantendu beharko dira.

3. Beteluko Udaleko alkateari ahalmena ematea kontratua eta horren ondoriozko agiri guztiak sinatzeko eta formalizatzeko.

4.- Erabaki hau esleipendunari eta eskaintza aurkeztu duten gainerako lizitatzailerak jakinaraztea.

Arratsaldeko bederatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.